

## GEURE ETA BESTEEN KULTURA

1.- Bertsotan idazteko  
laupabost txorrada  
paper eta lapitza  
hartu dugu bada  
gai bat hartu ezinik  
aspertu naiz jada  
hor dijoaz rimatan  
zenbait zertzelada  
ez dio inportikan  
ulertzen ez bada

2.- "Kultura" hitzak badu  
nahikoa entzute  
a ze gauza polita  
baina ez dut uste  
gureak ba omen du  
hamaika birtute  
baina kortesi osoz  
baztertu ohi dute  
eta heuren merke  
ematen digute

3.- Kulturaren aurrean  
gara txoropito  
Rambo, Tarzan, Dire Straits  
edo Hiro Hito  
biberoia bezala  
polito polito  
pixkana pixkanaka  
ez gaitezen ito  
ematen digutena  
irentsi ta kito



4.- Begi ta belarritik  
bazaude sana  
kultur bizitzarako  
ez zara nanoa  
aurrean daukadana  
ikustera noa  
masen kultura berri  
eta urbanoa  
baina espainola ta  
amerikanoa




5.- Joxek ez du holako  
kulturarik gura  
ta zuri ez al dizu  
sortzen arrenkura ?  
gure eskutan hartzen  
badugu kultura  
noizbait etorriko da  
behar den lekura  
ametsetan galdu zen  
Euskalerri hura

6.- Hainbeste mahai-inguru  
hainbeste kongreso  
bitartean euskara  
ahoetan preso  
oihuka jaso dira  
hainbat mila beso  
batzuek esan arren  
"pero que es eso"  
euskara erabiltzen  
saia zaite Lezo

Jon SARASUA



$P_{\text{in}} \cdot \pi^2$



Where used	ac power adaptor	Input voltage of adaptor
European countries	AC-37 (available in European countries)	220 V ac, 50 Hz
The United Kingdom	AC-37 (available in the United Kingdom)	240 V ac, 50 Hz
Other countries	AC-30 (available in other countries)	110, 120, 220 or 240 V ac adjustable, 50/60 Hz

THE